



2. Sistema elektroniko digitalak

Aurreko adibideetan, gailu digitalez osatuta dagoen sistema elektroniko digital bat erabili da digitalizatutako seinalea prozesatzeko (ordenagailua horrelako sistema bat da). 11. Irudian, sistema elektroniko digital bat erakusten da (ordenagailu baten txartel nagusi), eta han gailu digitalak gorritz nabarmendu dira. Oinarrizko gailu digitalei **ate logiko** deritze.




11. Irudia

Sistema horiek 1ekin eta 0ekin soilik lan egiten dutela esan ohi da. Izan ere, bi tentsio-mailarekin bakarrik lan egiten dute eta tentsio-maila bati 1 izena ematen zaio eta besteari 0. Beraz, transmititu nahi den informazioa 0 bada, orduan 0 V bidaltzen dira, eta 1 transmititu nahi izanez gero, ordea, 5 V sortuko dira. Hartara, 1010 informazioa 12. Irudian agertzen den uhin-forma moduan transmitituko litzateke sistema elektronikoan zehar.




12. Irudia

Hortaz, sistema elektroniko digitalek seinale zuzenekin lan egiten dutela ondoriozta daiteke. Izan ere, ate logiko baten oinarrizko egitura zirkuitu analogikoa da. 13. Irudiaren eskuinaldean, NOT deritzon ate logikoari dagokion ikurra ageri da, eta irudiaren ezkerraldean ate logiko horren oinarrizko egitura.



13. Irudia

14. Irudian, ate logiko baten itxura fisikoa ageri da. Gailuaren erdikaldean dagoen txipari zirkuitu integratu deritzogu, eta, han, hainbat ate logiko integratuta daude. NOT atea duen txiparen kasuan, txipak zortzi ate ditu.



14. Irudia